	ezartzea beraien independentzia arriskuan jar dezaketen gaietarako argibideak jasotzeko, baita kontu-auditoriaren garapen-prozesuari loturiko beste edozeinez ere; eta kontu-auditoriaren legerian eta auditoriako arau teknikoetan ezarritako beste komunikazioak ere.
Erabakien izaera	
Lotesleak	
Kontsulta-izaera	X

A.3.6 Bete ezazu ondorengo informazioa bere funtzionamenduari buruzko arauak adieraziz

Funtzionamendu-arauak	
Organoaren eraketa	Kideen gehiengo bertan dagoela.
Asistentzia-quoruma	Kideen erdiak eta bat gehiago.
Eguneko gai-zerrenda finkatzea	Batzordeko lehendakariak egin behar du, deialdian.
Erabakiak hartzeko araubidea	Gehiengo soilez.
Kideei eman beharreko informazioa	Bileran eztabaidatuko den guztia.
Kideek informazioa eskuratzeko sistemak	Bada Atari bat (intranet), Batzordeetako kideek erabil dezaketen, bilera guztietako dokumentu edo agiri guztiak ikusteko.

A.3.7 Informatu beren bileren aldizkakotasun edo deialdi-arauei buruz, baita ere zein kasutan batzorde-kideek eska dezaketen deialdi hori, honako taula honen bidez:

Bileren aldizkakotasun eta deialdiari buruzko arauak	
Aldizkakotasuna	Beharrezkotzat jotzen den beste aldiz, eta gutxienez urtean bi aldiz.
Deialdia	Lehendakariari dagokio.
Kideen eskubidea bileren deialdia eskatzeko	Lehendakariarengana jo behar dute, honek egin dezan deialdia.

A.3.8 Adierazi deituriko bilera-kopurua, eta horien artean zenbat izan diren kide batek edo gehiagok eskatuta:

	Guztira	Kide batek edo gehiagok eskatuta
Deitutako bilerak	6	

A.3.9 Hala badagokio, eman informazioa akordioak betetzearen barruko kontrol-sistemei buruz:

Erabakiak betetzearen barruko kontrol-sistemak
Bilera bakoitzaren Akta idazkariak idazten du eta bertan Batzordeak harturiko erabaki guztiak sartzen dira; Batzordearen hurrengo bilkuran, honek, hala badagokio, aurreko bilkurako akta onartzen du eta aipaturiko erabakiak betetzearen jarraipena egiten du.

B. IZENDAPEN-POLITIKA ZEHAZTEA

B.1 Azaldu ezazu banku-fundazioko gobernu-organoei aplikatu dakiekeen izendapen-politika:

Banku-fundazioko izendapen-politika
BBK Banku Fundazioaren Estatutu Sozialen 17. artikulua: 1. Patronatuko kideak hamabost (15) izango dira. Patronatu-kideak Fundazioaren gizarte-ekintzaren jardueraren garrantzitsuak diren pertsona fisiko edo juridikoak izango dira, eta artikulua honetan kuantifikatzen den

bezala, ondoren zehaztuko diren gizarte-intereseko taldeetakoak izan beharko dute:

- A) BBK-ko Erakunde Sortzaileak.
 - Bizkaiko Foru Aldundia• Bilboko Udala
- B) Fundazioaren jarduera-eremuan interes kolektiboen ordezkari diren erakundeak.
- C) Pertsona fisiko independenteak, ospe profesional nabarikoak, Fundazioaren gizarte-helburuen betetzeari dagozkion gaietan edo finantzarioaz bestelako sektoreetan, zeinetan Fundazioak inbertsio garrantzitsuak dituen.
- D) Finantza-gaietan ezagupen eta eskarmentu bereziak dituzten pertsona fisikoak (...)

BBK Banku Fundazioaren Estatutu Sozialen 22. artikulua:

- 1.- Patronatu-kideek ohoragarritasun komertzial eta profesionalaren baldintzak bete behar dituzte, legez eta estatutuz aplikagarri zaizkienak.
- 2.- Patronatu-kideek legez eta estatutuz eska dakizkiekeen eginkizunak betetzeko berariazko ezagupenak eta eskarmentua izan behar dituzte.
- 3.- 17. artikuluko C) atalean ezarritako patronatu-kideek (gizarte-ekintzan adituek) goi-mailako tituludunak, aipaturiko gai edo arloetan esperientzia egiaztatua dutenak, izan behar dute.
- 4.- 17. artikuluko D) paragrafoan ezarritako patronatu-kideek (finantza-gaietan adituek) ohoragarritasun, esperientzia eta gobernu oneko baldintzak bete behar dituzte, ondorio hauetarako, administrazio-organoko kideei eta bankuetako kargu baliokideei aplikagarri den legeriak eskaturikoak.
- 5.- Pertsona juridikoei pertsona fisiko baten bidez ordezkaturik egon behar dute Patronatuan, baina hori ez da inskribaturiko Fundazioen Erregistroan. (...)

- B.2 Azaldu itzazu inplementaturiko neurriak eta prozesuak, banku-fundazioaren gobernu-organoean izendaturiko pertsonen beren funtzioak betetzeko Legeak eskatzen dizkien baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko:

Banku-fundazioaren gobernu-organoean izendaturiko pertsonen beren funtzioak betetzeko Legeak eskatzen dizkien baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko inplementaturiko neurriak eta prozesuak

Patronatuko kideen funtzioak betetzeko Legeak eskaturiko baldintzen kontrola Izendapen Batzordearena da, batez ere:

1. Izendapen Batzordeak izendapen-proposamenak aztertuko ditu, gehienez ere 10 egun naturaleko epean, zera egiaztatzeko: izendaturikoek betetzen dituztela beraien izendapenerako eskatzen diren legeko eta estatutuzko baldintzak.
2. Erakunde sortzaileek izendaturiko pertsona batek edo gehiagok ez baditu baldintza horiek betetzen, Izendapen Batzordeak Patronatuko lehendakariari jakinaraziko dio, honek dagokion erakundeari beste izendapen bat eska diezaion gehienez 10 egun naturaleko epean, eta Izendapen Batzordeak hori jaso ondoren, atal honetan ezarritako izapideak jarraituko ditu.

- B.3 Hala badagokio, identifikatu izendapen-politikari loturiko funtzioak betetzeko sortu diren organo edo batzorde bereziak:

Organoak	Funtzioak
Izendapen Batzordea	Proposaturiko hautagaiek Legeak eskaturiko baldintzak betetzen dituzten edo ez aztertzea eta Patronatuari proposamen bat helaraztea.
Patronatua	Azken instantzian izendapena erabakitzea edo ez.

C. INBERTSIO-POLITIKA PARTAIDETURIKO KREDITU-ERAKUNDEAN

- C.1 Azaldu labur zein diren inbertsio-politikaren helburuak kreditu-erakunde partaidetuan eta banku-fundazioak erakunde hartan duen partaidetzaren kudeaketa arautzen duten irizpideak:

Inbertsio-politika partaideturiko kreditu-erakunde
2017an BBK Banku Fundazioak % 57ko partaidetza-kuota mantendu du partaideturiko kreditu-erakunde (Kutxabank), hori izanik bere inbertsio nagusia, dagozkion dibidenduak kobratuz BBKren gizarte-ekintza, iraunkorra eta iraungarria, bermatu ahal izateko. Ez dira proiektatzen beste inbertsio esanguratsu batzuk.

- C.2 Adierazi kreditu-erakunde partaidetuaren akzioak eskuratu eta eskualdatzeko banku-fundazioak egindako eragiketak, edo egindako beste edozein eragiketa banku-fundazioak kreditu-erakunde partaidetuan dituen boto-eskubideak aldatu dituen:

Egindako eragiketa	Boto-eskubideak aldatu diren modua
Banku-fundazioak ez du honelako batere eragiketarik egin 2017an.	

- C.3 Azaldu ezazu banku-fundazioak jarraituriko politika erakunde partaidetuak egindako emaitza-banaketari dagokionez, dibidenduen banaketa eta baliabide propioen gehikuntza barne, eta nola zertu den boto-eskubidea gai hauei buruz:

	Erakunde partaidetua
Emaitza-banaketari buruz izandako politika eta nola erabili den boto-eskubidea.	Kutxabaneko Administrazio Kontseiluak 2017rako proposaturiko etekinaren %50 banatzea onartu du BBK Banku Fundazioak.
Dibidendu-banaketari eta emaitzei buruz izandako politika, eta nola erabili den boto-eskubidea.	BBK Banku Fundazioak 2017ko etekinaren %50eko dibidendua banatzeko proposamenaren alde bozkatu du, Kutxabaneko Administrazio Kontseiluak formulatua.
Baliabide propioen gehikuntzari eta emaitzei buruz izandako politika, eta nola erabili den boto-eskubidea	Kutxabanek banaturiko dibidenduaren %57 jaso du BBK Banku Fundazioak, eta bere Gizarte Ekintza gauzatzera eta Nahitaezko Erreserba Funtza hornitzera bideratu du.

- C.4 Azaldu ezazu banku-fundazioaren akordio-politika kreditu-erakunde partaideturiko beste akziodun batzuekin.

Banku-fundazioaren akordio-politika kreditu-erakunde partaideturiko beste akziodun batzuekin.
Ez dago BBK banku-fundazioaren akordio-politikarik Kutxabaneko beste inolako akziodunekin. Erakunde zko Babes Sistema (SIP), 2011ko ekainaren 30ean Kutxabank sortarazi zuena, iraungi egin zen aurrezki-kutxak banku-fundazio bihurtu zirelako eta hauek finantza-erakunde izaera galdu zutelako. Bereziki, BBK banku-fundazio bihurtu zen Aurrezki Kutxaren Batzar Nagusiak 2014ko ekainaren 30ean hartutako erabakiz. Are gehiago, BBK eta VITAL banku-fundazioek, Kutxabank bankuarekin batera, SIPen "Amaiera Dokumentua" izenpetu zuten 2015eko martxoaren 24an eta Kutxa Fundazioak bat egin zuen iraungitze-dokumentu horrekin, bere Patronatuak 2016ko martxoaren 17an berariaz hartutako erabakiaren bidez

- C.5 Azaldu itzazu hirugarrengoen egindako akordioak, zeintzuek, dauzkan boto-eskubideen egikaritze hitzartuaren bidez, politika komun iraunkorra hartzera behartzen duten kreditu-erakunde partaidetuaren kudeaketari dagokionez edo bertan eragin garrantzitsua izateko xedea duten:

Hartutako akordioa	Zein erakunderekin sinatu den akordioa	Akordioaren edukia boto-eskubidearen egikaritze hitzartuaren aipamenaz
Ez dago inolako akordiorik hirugarrengoen.	Inorekin ez	Ez dago akordiorik

- D. **BESTE INBERTSIO BATZUK: JARDUKETAK ETA JARRAITURIKO POLITIKA**

- D.1 Azaldu ezazu zein den jarraituriko inbertsio-politika, zelan aplikatu den eta horren emaitzak kreditu-erakunde partaidetuaz bestelako sozietateetako bakoitzean, zehaztuz gainera ea erabili den boto-eskubidea sozietateen batzar nagusietan eta, kasu horretan, zein norabidetan eman den:

	Inbertsio-politika	Boto-eskubidearen egikaritzea eta norabidea	Portaeraren azalpena
[Sozietatearen izena 1]	2017an ez dago beste inbertsiorik enpresa partaidetuetan.	Ez dagokio	Ez dagokio
[Sozietatearen izena 2]	2017an ez dago beste inbertsiorik enpresa partaidetuetan.	Ez dagokio	Ez dagokio

- D.2 Azaldu zein diren enpresa-partaidetzak eskuratzeko, besterentzeko eta beste xedapen-egintza batzuetarako eskumena esleituta duten organoak, hala badagokio:

Enpresa-partaidetzei buruz erabakitzeke eskumena duten organoak
Ez dago inbertsiorik beste enpresa partaidetu batzuetan, Kutxabanketik kanpo. Baina egongo balira, Inbertsio Batzordea izango litzateke eskuduna informatzeko eta aholku emateko, eta Patronatua izango litzateke eskuduna arlo honetan behin betiko erabakiak hartzeko.

- D.3 Azaldu itzazu sozietate partaidetuen akzioak eskuratzeko eta eskualdatzeko eragiketak:

Egindako eragiketa
Ez da honelako batere eragiketarik egin 2017an

- D.4 Azaldu ezazu banku-fundazioak mantendutako politika erakunde partaidetuen emaitza-banaketari dagokionez, dibidenduen banaketa eta baliabide propioen gehikuntza barne, eta, hala badagokio, zelan zertu den boto-eskubidea gai hauei buruz:

	Emaitzak banatzeko politika	Boto-eskubidea erabiltzea
1 sozietatea	Ez dagokio	Ez dagokio
2 sozietatea	Ez dagokio	Ez dagokio

E. BANKU-FUNDAZIOAREN ORDAINSARIEN ETA GASTU ORDAINDUEN POLITIKA

E.1. Beren funtzioak betetzerakoan eragindako zordunketengatik patronatu-kideei ordaindutako gastuen xehetasuna.

- E.1.1. Azaldu ezazu laburki zein den kargua betetzearen ondoriozko gastuak patronatu-kideei ordaintzeko politika, ordainketarako arauak eta baldintzak seinalatur, ordaingarritzat jotzen diren gastuak, ordainketak egiteko erabiltzen diren ordainbideak, banku-fundazioak ezarritako gehienezko mugak eta horiek onartzeko prozedura eta organo eskudunak:

Patronatu-kideei gastuak ordaintzeko politika
<p>Estatutu Sozialen 16. artikulua – KARGUEN IZAERA.-</p> <p>Patronatu-kideek doan beteko dute beren kargua, baina eskubidea izango dute beren funtzioa betetzerakoan karguak eragiten dizkien gastuak, behar bezala justifikatuak, kobratzeko.</p> <p>Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Patronatuak ordainsari egokia finkatu ahal izango</p>

du, baldin eta Patronatuko kide gisa dagozkien funtzioak ez bezalako zerbitzuak Fundazioari ematen dizkieten patronatu-kideentzat, Babeslaritzak alde aurretik ordainduta”,

Halaber, Patronatuak kopuru finko bat ezarri ahal izango du asistentzia-dieta gisa, kargua betetzeak eragiten dituen gastuak ordaintzeko helburuz, artikuluko honen lehen paragrafoan aipatzen dena eta hura ordezkatzuz.

Patronatu-kideek Fundazioaren interesen onurarako eta beronen gizarte-funtzioa betetzeko soilik egikarrituko dituzte beren funtzioak.

Patronatuak 2014ko abenduaren 30eko bilkuran onarturiko III-2 Erabakiaren transkripzioa:

III.2.- Karguak patronatu-kideei eragiten dizkien gastuak ordaintzeko kopuru finko bat esleitzea:

“(…) Izendapen Batzordeak, aho batez, ondoren zehaztuko diren kopuru finkoak ezartzea proposatzen dio Patronatuari, eta hori (i) Patronatuko eta (ii) Batzorde Delegatuetao kideei, beren funtzioak betetzearen ondorioz, eragiten zaizkien era guztietako gastuak ordaintzeko helburuz.

- A) Patronatuko kideak.- HIRUREHUN (300) EURO finko Patronatuak egiten dituen bileretako bakoitzera etortzeagatik.
- B) Batzorde Delegatuetao kideak.- EHUN ETA BERROGEITA HAMAR (150) EURO finko Batzorde Delegatuetao bakoitzak egiten dituen bileretako bakoitzera etortzeagatik.
- C) Halaber, Izendapen Batzordeak Patronatuari proposatzen dio kopuru horiek patronatu-kideei ordaintzea, atzera eraginez, Banku Fundazioak eratu zenetik egin dituen bilkura guztiengatik.

Izendapen Batzordeko lehendakariaren azalpenak entzunda, Patronatuak, aho batez, patronatu-kideei aurreko A) eta B) paragrafoetan bilera bakoitzagatik ezarritako kopuru finkoa esleitzea erabaki du, aurreko C) paragrafoan egindako ñabardurarekin. Bestalde, Patronatuak, aho batez, zera erabaki du: egun berean gertatzen badira Patronatuaren bilera eta Batzorde Delegatu batena edo gehiagorena, Patronatuaren bilerari dagokion kopuru finkoa bakarrik ordainduko zaiela patronatu-kideei.

E.1.2. Osa ezazu hurrengo taula patronatu-kideetako bakoitzarentzat:

Beren funtzioak betetzerakoan eragindako zordunketengatik patronatu-kideei ordaindutako gastuak:

Izena/ Tipologia/ t ekitaldi sortzapen- aldia	Ordain daitezkeen bidaia-gastuak	Ordain daitezkeen mantenu- gastuak	Ordain daitezkeen protokolo- gastuak	t ekitaldia guztira	t ekitaldia – t-1 ekitaldia balioa	t ekitaldia – t-2 ekitaldia balioa	t ekitaldia – t-3 ekitaldia balioa
Guztira	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €

E. 2 Banku-fundazioaren ordainsari-politika gauden ekitaldian.

E.2.1. Identifika itzazu patronatu-kide gisa dagozkien gain bestelako zerbitzuak banku-fundazioari egiten dizkieten patronatu-kideak, abenduaren 27ko 26/2013 Legearen 40.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta deskribatu laburki zerbitzu horiek:

Patronatu-kidearen izena	Patronatuko kide lege dagozkien funtzioak betetzeak inplikatzeko dituen zerbitzuez bestelakoaren deskribapena
SAGREDO ORMAZA, Xabier	BBK banku-fundazioko lehendakariak funtzio betearazleak zertzen ditu, Patronatuko lehendakariarentzat Legeak ezarritako erakundeeko funtzioak gainditzen dituztenak. Funtzio horiek Patronatuak 2014/12/30ean hartutako erabakiaren bidez esleitu zitzaizkion. Zehazki, funtzio horiek honako hauek dira: 1.- Patronatuaren eta bere Batzordeen erabaki guztiak betearaztea. 2.- Banku Fundazioaren xede eta helburu den jardueraren

	<p>funtzionamendua planifikatu, koordinatu eta kontrolatzea.</p> <p>3.- Banku Fundazioaren antolaketa on eta funtzionamendu eraginkorrerako egokiak iruditzen zaizkion agindu eta jarraibideak ematea, beraren xede sozial eta helburuari loturiko dependentzia guztiak eta gainerako zerbitzuak zuzendu, gainbegiratu, ikuskatu eta zaintzea dagokiolarik. Bereziki, zuzendari nagusiaren jarduera zaindu eta gainbegiratuko du.</p> <p>4.- Pertsona fisiko edo juridiko batek eman beharreko zerbitzu profesional, tekniko edo bestelakoak kontratatzea, komenigarri iruditzen zaion baldintzetan.</p> <p>5.- Ezusteko kasuetan agertzen diren gai guztiak erabakitzea, ahal duenean horren berri Patronatuari emanez, organo horrek egiten duen lehen bilkuran.</p> <p>6.- Lege-xedapenak, Estatutuak, Erregelamenduak eta Patronatuak eta Batzordeek hartutako erabakiak betetzea eta betearaztea.</p> <p>7.- Banku Fundazioaren izenean sinatzea era guztietako gutun eta agirietan, baita agintarietako eta erakunde ofizialekiko harremanetan ere. Banku Fundazioari zuzendutako edo honek bidalitako gutunak jaso, erantzun eta sinatzea, posta, telegrafo, telefono, telex edo beste edozein prozedura bidez izan, baita ziurtatuak, igorpenak eta balio aitortuen edo aseguratuen pleguak ere; eta horretarako Posta-administrazioetatik, telegrafo-estazioetatik eta beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik jaso ahal izango ditu balio aitortuen pleguak, igorpenak eta era guztietako agiri publiko edo pribatuak, baita Banku Fundazioaren izenean erretiratu edo bidali ere era guztietako salgaiak edo bidalketak, dagozkion erreklamazioak eginez.</p> <p>8.- Kudeaketa eta administrazio-gastuak baimentzea, Banku Fundazioaren ondarearen erabilera onenari begira komeni dena xedatuz.</p> <p>9^a.- Hitzarmenak eta Lankidetzak egitea Estatu, Eusko Jaurlaritza, Aurrezki Kutxa, Banku eta Kreditu Erakunde, Toki Korporazio, Erakunde Ofizial, era guztietako Sozietate pribatu eta Erakundeak, Banku Fundazioaren zerbitzuak edo Banku Fundazioaren xede eta helburuekin lotuak emateko.</p> <p>10.- Banku Fundazioaren kontuetan abonu- eta sartzeko-eragiketak egitea, edozein igorpen-prozedura edo diru-mugimendu erabiliz. Banku Fundazioaren kontuetatik beste kreditu-erakunde batzuetara edo ez direnetera, baita Espainiako Bankura ere, transferentzia-eragiketak baimentzea.</p> <p>11.- Banku Fundazioaren izenean edo beraren alde edozein motatako zenbatekoak ordaindu eta kobratzea, edozein pertsona fisiko, natural edo juridikorengandik, eta izaera pribatu edo/eta publikoko erakundeengandik, horien artean daudelarik Ogasun Ordezkaritza, Foru Ogasuna, Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, Espainiako Bankua eta beste banku ofizial batzuk, eta edozein motatako erakundeak, inolako mugarik gabe. Ondorio horietarako, beharrezkoak diren igorpenak eta transferentziak formalizatu eta sinatu ahal izango ditu aipaturiko pertsona eta erakundeen alde.</p> <p>12.- Hitzarmenak egitea hartzekodun eta zordunekin, saldo hartzekodun eta zordunak finkatzea, kitak eta itxarroteak edo barkamenak ematea, eta hala badagokio kreditu edo zorren likidazioagatik proposamenak eskaini eta onartzea, horiei buruz amore emanez.</p> <p>13.- Zorrak eta era guztietako obligazioak aitortu eta ordaintzea komenigarrien iruditzen zaizkion itun eta baldintzekin, azken kitatzeak onartuz eta, hala badagokio, kitak edo itxarroteak onartuz, dagozkion ordainketa-gutunak eman edo eskatuz.</p> <p>14.- Mota guztietako xedapen- eta jabari-egintzak egitea era guztietako ondasun eta eskubideen gainean, ondasun higiezinak barne, egokiak iruditzen zaizkion prezio, itun eta baldintzetan, eta azaldutako horren osagarri izango dena burutzea, horretarako beharrezko edo komenigarri diren agiri publiko edo/eta pribatuak sinatuz. Ahalmen horretatik berariaz salbuetsita daude ondasunak, zeinahi delarik horien izaera higiezin edo higigarria, baloreak, balore-tituluak eta edozein eratako beste sozietate edo erakunde batzuetako partaidetzak zuzkidura-ondarea osatzen dutenean.</p> <p>15.- Era guztietako aseguru-kontratuak egitea, legez onarturiko edozein</p>
--	--

	<p>modalitate pean eta egokiak iruditzen zaizkion baldintzetan, bai ondasun higigarri edo higieziinei eragin diezaieketen edozein motatako kalte-arriskuak estaltzeko Banku Fundazioa denean ondasun horien jabe, errentari edo azpierreari, gordailuzain, edota horietaz gozatu edo baliatzen denean edozein eratan edo horien gain ardurara edo erantzukizunen bat duenean; baita era guztietako aseguruak hitzartu edo sinatzea ere Banku Fundazioarentzat zerbitzu edo lanen bat egiten duten pertsonen alde, laneko harremana edo zerbitzugintzako beste edozein era medio dela; erantzukizun zibileko aseguruak eta, orokorrean, mota guztietako aseguru-kontratuak egitea: kalte, sute, lapurreta, lehorreko, ibaiko edo itsasoko garraioari buruzko aseguruak, mozkin-galeraren edo lortu gabeko irabaziaren aseguruak, kauzio, kreditu edo pertsonena; dagozkien sari edo primak ordaintzea, kalte-ordainak eskatu eta jasotzea, aitopenen egin eta argibideak ematea, azken kitatzeak eta konpentsazioak sinatzea, baita horiei buruzko era guztietako agiri publiko edo/eta pribatuak ere.</p> <p>16.- Kanbio-letrak, ordaindukoak, txekuek, ordainagiriak, fakturak, baleak edo antzeko beste edozein agiri igortzea, onartzea, abalatzeta, endosatzea, deskontatzea, negoziatzea, konformatzea, lagatzea, baita dokumentu horietan itunak eta klausulak, legez onartuak edo debekatu gabeak, ezartzea ere.</p> <p>17.- Epaitegi, auzitegi, lan-arloko epaitegi eta antzeko beste erakundeen aurrean, era guztietako enkanteetan parte hartzea, lizitazioak egin eta ondasun higiezinak, higigarriak, eskubideak eta era guztietako akzioak eskuratuz, baita hirugarrengeoi lagatzeko ere, egoki iruditzen zaionari errematea eskualdatzeko ahalmenekin. Era guztietako prozeduretan Banku Fundazioari esleitutako higiezin edo higigarrien jabetza hartzea, horretarako beharrezko zuzemen edo gestioak eginez, baita maizterbotatzeak eginez ere.</p> <p>18.- Ahalmena ematea, Banku Fundazioaren ondasun eta eskubideei dagokienez, beraren ordezkari izan dadin Jabetzaren Erregistroan, Fundazioetan edo bestetan, beraietan inskriba daitekeen edozein egintza inskribatzea, zuzentzea edo/eta ezereztea eskatzeko, bai Banku Fundazioari eta bai bere sukurtsalei edo/eta bere ahaldunei dagokiena izan.</p> <p>19.- Banku Fundazioarenak diren finkak nahitaez desjabetzeko espedienteetan esku hartzeko ahalmena, era guztietako erakunde ofizialen aurrean. Desjabetzea proposatzen denaren balioa hitzartzea eta, edozelan ere, horren baloraziorako adituak izendatzea. Okupatu aurreko akta formalizatzea. Finkatzen den prezioa onartzea edo erreklamazio eta errekursoetan sartzea. Hala badagokio, desjabetuko den finka okupatzeko baimenak ematea. Hitzarturiko balioa jasotzea eta horretarako behar diren agiri publiko edo/eta pribatuak sinatzea, eta espediente horietan Patronatuak hartzen dituen erabakiak egikaritzea.</p> <p>20.- Bere eraikinen eta era guztietako dependentzien gaikuntza eta kontserbazioak eskatzen dituen lan eta instalazioak onartu eta egitea, baita altzariak eta bulego-materiala konpondu eta eskuratzea ere.</p> <p>21.- Banku Fundazioaren izenean, Banku Fundazioak berak parte hartzen duen sozietate, fundazio edo beste erakunde batzuen administrazio-kontseiluen edo akziodunen batzar nagusien bilkura, ohiko nahiz berezi, guztietara joatea, itunen eta estatutu sozialen arabera hori dagokionean; eta inolako mugarik gabe erabiltzea dagokion boto-eskubidea edozein kargutarako gizabanako edo pertsona juridikoen izendapenei buruzko erabakiak onartu edo aurkaratzeko, eta Banku Fundazioari egokitzen zaizkion karguak onartzeko; halaber, aurreko ekitaldiko kudeaketa soziala, kontuak eta balantzeak onartzeko edo gaitzesteko, hala badagokio; eta mozkinen banaketaz erabakitzeak, gobernu eta administrazio-era aldatzeko, izenak eta egoitza soziala aldatzeko eta, oro har, Banku Fundazioak parte hartzen duen sozietateen bizitzari buruzko erabaki guztiak, beraien araubidearen funtsezko aldaketarik suposatzen ez badute, horretarako beharrezkoak diren agiri publiko edo/eta pribatuak sinatuz.</p> <p>22.- Banku Fundazioaren ordezkari izatea era guztietako agintari, funtzionario, bulego, erakunde, korporazio eta estatuko, tokiko, eskualdeko, federazioko, nazioz gairik administrazio-erakundeen, autonomia-erkidego eta beraien erakundeen aurrean; Banku</p>
--	---

	<p>Fundazioaren ordezkari izatea era guztietako pertsona fisiko edo juridikoen aurrean, zuzenbide publiko edo pribatukoak izan, nazionalak edo atzerritarrek izan, baita jabeakideen erkidego, ondasun-erkidego, jabe edo erabiltzaileen partzuergo, Konposizio Batzorde, Kontserbazio Erakunde, Hirigintzako Erakunde laguntzaile, Elkartea, Fundazio eta beste edozein erakunde publiko edo pribaturen aurrean. Eta ondorio horietarako, BBK Banku Fundazioari dei egiten zaion edota joateko eskubidea duen bilera guztietara joatea; erabakiak hartu, onartu edo aurkaratzea; era guztietako idazki, eskabide, eginbide, gobernazio-edo administrazio-espeditenteak beren izapide guztietan zuzentzea, erreklamatzeari, hasiera eman eta jarraitzea, pertsona, agintari, funtzionario edo erakunde horien aurrean agertuz. Hirugarren pertsona batzuek —fisiko nahiz juridikoen, publiko edo pribatuek, nazional edo atzerritarrek— Banku Fundazioari ematen dizkieten ahalmenak egikaritzea, bere esku uzten diren egintza, negozio, zuzemen edo kontratuak gauzatuz, bai administrazio-koak eta bai jabarikoak, hirugarren pertsona horien ondasun, eskubide edo obligazioei buruzkoak, gauzatzeko beharrezko izan daitezkeen dokumentu publiko edo pribatu guztietan esku har dezakeelarik, eta fiduziario, albazeari, kontulari-banatzailerik edo gordailuzain gisa ere jardunez, Banku Fundazioaren esku uzten diren jarduera guztiak egikaritu edo burutuz.</p> <p>23.- Edozein agintari, edozein mailatako epaitegi eta auzitegiaren aurrean agertzea auzi-jartzaile, demandatu, laguntzailekide, kereila-jartzaile gisa edo beste edozein kontzeptutan; adiskidetzeko-ekitaldietara joatea; era guztietako epaiketa eta prozedurak, ohikoak edo/eta bereziak, baita borondatezko jurisdikzio-espeditenteak ere, bere izapide guztietan aktiboki edo pasiboki hasi, jarraitu, atzera egin, bertan behera uzteko eskatu eta amaitzea. Epaiaketen aitorpenak egin ahal izango ditu eta posizioak absolbitu. Ebazpen judizialen aurrean apelatu, erregutu eta errekurtsioa jarri, legeek baimentzen dituzten errekurtsioak erabiliz, izaera ohikoa edo berezia izan eta edozein jurisdikzio-organoren aurrean, baita kasazio-koak eta berrikuspenekoak ere Auzitegi Gorenaren aurrean. Lan-arloko epaitegien eta gaur egun edo etorkizunean Espainiako lan-antolaketa osatzen duten gainerako erakundearen aurrean esku hartzea, beraien aurrean agertuz Banku Fundazioaren interesen alde egiteko, berari auzi-jartzailea edo demandatua izan, baita ere jurisdikzio honetako instantzia guztietan ematen diren ebazpenen kontra errekurtsioa aurkezteko ere. Bereziki salaketak eta kereila kriminalak aurkezteak, horien jarraipena egin eta uko egitea, komeni bada betiere. Errekurtsio ekonomiko-administratiboak, eta administrazio-erakundeak auzi-errekurtsioak jarri eta beren izapide eta instantzia guztietan jarraitzea, baita Auzitegi Gorenaren aurrean ere.</p> <p>24.- Hartzekodunen konkurtso baten edozein fasetara joan eta bertan parte hartzea hitzarekin eta botoarekin, hitzarmen-proposamenak onartuz edo errefusatzuz, dagozkion karguak izendatu eta berrestea, Banku Fundazioari dagozkion karguak onartzea, baita kontu-hartzaile edo sindikoarenak ere, kasuen arabera, kredituen aitorpen eta graduazioetan esku hartzea, Banku Fundazioari dagozkion kredituak kobratzea, ondasunak saldu, enkantera atera eta esleitzea, dagozkion Batzordeak erabakitzen duen legez, Batzorde horietan hartzen diren erabakiak onartu eta burutu edo gauzatzeko ahalmenak dituelarik, inolako muga barik. Atzera egin eta edozein eztabaida zuzenbide edo ekitateko epaileen laudo edo ebazpenaren mende jartzea, indarrean dagoen legeriaren arabera.</p> <p>Klausula honetan emandako ahalmenen ondorioetarako, era guztietako idazkiak eta eskabideak aurkezteak, eta horietan berrestea; salbuespenak, frogak, formulatzea, bereziki epaiaketen aitorpena egitea, peritua izendatzea, ituna egin eta ezestea, agertze pertsonalak egitea, zinpeko deklarazioak eta sinpleak; enbargoak, bahiketak eta prebentziozko idatz-oharrak kendu edo ezereztea; utzarazpenak, kanporatzeak eta ondasun-erakundeak eskatzea; administrazioak, esku-hartzeak, gordailuak edo kontserbazio, segurtasun, prebentzio edo bermerako beste edozein neurri eskatzea; era guztietako notario-aktak premiatzea; epaileen eta notarioen errekerimenduak eta jakinarazpenak egin, jaso eta betetzeak; epaileen baimen, zainpean jartze, askapen edo jabari-espeditenteak premiatiu edo horien aurka egitea; legeek eskatzen dituzten kontsignazioak egitea eta, hala badagokio, erretiratzea. Banku</p>
--	--

	<p>Fundazioaren alde eratutako edozein motatako berme, pertsonal edo erreal (hipoteka, bahi, etab.), gauza dadin eskatzea, horretarako beharrezko diren dokumentu publiko edo pribatuak sinatuz. Ondasunen esleipena eskatzea, baita Banku Fundazioari esleituriko ondasunak onartzea ere.</p> <p>25.- Marka, patente, utilitate-modelo, izen komertzial, establezimendu-errotulu, literatura-lan, marrazki, grabatu, film zinematografiko, bestelako film, ahots- eta musika-grabazio eta jabetza industrial eta intelektualaren edozein eskubide —dagozkion Erregistro Publikoetan, Espainiako nahiz atzerrikoetan, sar daitekeena— erregistratzea; eskubide horiek hirugarrengoa batzuekin izenpetzearen aurka egitea; hirugarrengok, pertsona fisikoak edo juridikoak izan, Banku Fundazioaren alde inskribaturiko jabetza industrial edo intelektualaren eskubideak erabil ditzaten onartzea; era guztietako administrazio-errekurtsoak edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jartzea; harpidetza horien luzapena eskatzea, baita jabetza industrial edo intelektualaren eskubide horiek erostea, saltzea, lagatzea edo horiei uko egitea ere, eta horiei loturiko beste edozein egintza, izapide edo zuzemen egitea edozein erregistro edo erakunde nazional edo/eta atzeritarren aurrean.</p> <p>26.- Inolako mugapenik gabe, aurrez aipaturiko ahalmen guztiak edo batzuk ordeztzea, ordeztailleak ahalmen horiek egikaritzen jarraitu ahal izatea baztertu gabe, komenigarri iruditzen zaizkion pertsonen alde; eta ordeztuei baimena ematea eurek ere eman zaizkien ahalmenak, guztiak edo batzuk, ordeztu ditzaten; ordezkapenak ezeztatzea, nornahi dela ere onartu dituen, eta berriro beste batzuk ematea.</p> <p>27.- Banku Fundazioaren Gizarte Ekintzak gauzatzeko erabiltzen diren establezimenduak, zentroak eta jarduerak zuzentzea, administratzea, ikuskatzea eta zaintzea, zuzenean edo Fundazioen bidez; zerbitzuei eta destinoei buruzko beharrezko dokumentazioa erabiltzea, behar bezala zainduta egon daitezen, Patronatuari proposatuz beharrezkoak iruditzen zaizkion aldaketak behargin edo langileen artean; indarrean dauden lan-, segurtasun- eta higiene-arauak bete daitezen zaintzea; langileei eskudantziak, betebeharrak eta ardurak adieraztea; beharginiei zigorrak jartzea, hutsegite larri eta oso larrien kasuan izan ezik, horrelakoetan erabakia Patronatuari dagokio eta.</p> <p>28.- Zuzendari nagusiaren izendapena Patronatuari proposatzea.</p> <p>29.- Patronatuari kontuak ematea, eta inbentarioa, balantzea, emaitzen kontua, oroitidazkia eta aurrekontua aurkeztea.</p> <p>30.- Era guztietako proiektuak, azterlanak eta zerbitzuak kontratatzea, baita bidezkoak iruditzen zaizkion lankidetzak- edo laguntza-kontratuak egitea ere.</p>
--	--

E.2.2. Informatu dataz, terminoez eta baldintzez, zeinetan onartu baitzen babeslaritzaren erabakia ordainsaria baimenduz, abenduaren 27ko 26/2013 Legeak 40.4 artikuluan ezarritakoaren arabera:

Erabakiaren data	Terminoak eta baldintzak
2015/03/30	Euskadiko Fundazioen Babeslaritzak BBK Banku Fundazioaren Estatutu Sozialen 26. artikuluen aldaketa onartu du; horren arabera lehendakariari funtzio betearazleak eman zaizkio eta kontzeptu horrengatik ordainsaria onartu da, Patronatuaren aho batezko erabakiz 2014ko abenduaren 30ean eta 2015eko martxoaren 26an egindako bileretan.

E.2.3. Azaldu banku-fundazioaren ordainsari-politika. Epigrafe honetan honako hauei buruzko informazioa sartuko da:

- Ordainsari-politikaren printzipio eta oinarri orokorrak.
- Aurreko ekitaldian aplikatuarekiko, ordainsari-politikan egindako aldaketarik esanguratsuenak.
- Banku-fundazioaren ordainsari-politika ezartzeko erabiltako irizpideak.
- Ordainsari-kontzeptu aldakorrek finkoekiko suposatzen duten ehunekoa, bai banaka eta bai globalki.

- Patronatuko kideen, zuzendari nagusiaren, patronatuko idazkariaren, zuzendaritzakoen eta batzordeko delegatuetako edo beste organo delegatu edo ahaldu batzuetako kideen ordainsari-paketeko osagaiak zehazteko jarraituriko irizpideak

Ordainsari-politika
<p>Irizpide nagusia BBK Banku Fundazioaren estatutuetan 16. artikuluan ezarritakoa da: <i>“Patronatu-kideek doan zeteko dute beren kargua, baina eskubidea izango dute beren betekizuna betetzerakoan karguak eragiten dizkien gastuak, behar bezala justifikatuak, kobratzeko. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Patronatuak ordainsari egokia finkatu ahal izango du Patronatuko kide gisa dagozkien funtzioak ez bezalako zerbitzuak Fundazioari ematen dizkioten patronatu-kideentzat, Babeslaritzak alde aurretik baimenduta”.</i></p> <p>Irizpide horri jarraituz, Patronatuko kideen artetik, lehendakariak emandako zerbitzuak bakarrik ordaintzen dira, 2015eko martxotik aurrera, E.2.1. eta E.2.2. paragrafoetan azaldu den legez.</p> <p>Idazkaria (Patronatuko kide ez dena), zuzendari nagusia eta zuzendaritzako gainerako karguak, baita lan-kontratu bidez Banku Fundazioarekin loturiko pertsonak ere, ez dira Patronatuko kideak eta horien funtzioak ordainduak dira, betiere erreferentziatzen harturik zerbitzu horien merkatu-balioa.</p>

E.2.4. Ordainsari-politika erabaki eta onartzeko prozedurari buruzko informazioa:

Ordainsari-politika erabakitze prozesua
<p>Ordainsari-politika erabakitze prozedura 26/2013 Legeak, aurrezki-kutxa eta banku-fundazioenak, ekainaren 2ko 9/20016 Legeak, Euskadiko Fundazioei buruzkoak, eta BBK Banku Fundazioaren Estatutu Sozialek beharturikoa da.</p>

E.2.5. Adierazi ordainsari finioen zenbatekoa eta izaera, zuzendaritzakoen ordainsariak eta asistentzia-dietak banakatuz, hala badagokio:

Ordainsariaren osagai finioak
<p>2017 ekitaldian, honako soldata gordin hauek ordaindu dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Xabier Sagredo Ormaza (lehendakari betearazlea), soldata gordina: 97.000 € - Javier Aldazabal Etxebarria (idazkari nagusia), soldata gordina: 80.000 € - Jorge Martinez Salcedo (zuzendari nagusia), soldata gordina: 70.000 €

E.2.6. Azaldu itzazu ordainsari-sistemen osagai aldakorren zenbatekoa, izaera eta ezaugarri nagusiak.

Bereziki:

- Identifika ezazu ordainsari-planetak bakoitza, horien onuradunak patronatuko kideak, zuzendari nagusia, patronatuko idazkaria, zuzendaritzakoak eta batzorde delegatuetako edo beste organo delegatu edo ahaldu batzuetako kideak direnean; baita plan horien zenbaterainokoa, onartze-data, ezartze-data, indarraldia, eta ezaugarri nagusiak ere.
- Adierazi mozkinetako partaidetza edo hobari kontzeptuan jasotako edozein ordainsari, eta zergatik onartu ziren.
- Akzioen gaineko aukerak edo banku-fundazioak parte hartzen dueneko banku-erakundearen akzioaren balioari erreferentziaturiko beste edozein tresna.
- Azaldu itzazu urteko edozein hobari-sistemaren (bonus) funtsezko parametroak eta oinarria.
- Ordainsari aldakorreko aipatu sistema edo planen oinarria, jarduera ebaluatzeko hautaturiko irizpideak, baita ere ebaluazio-irizpide horiek bete diren edo ez erabakitze osagaiak eta ebaluazio-metodoak, eta indarrean dagoen ordainsari-planak sorraraziko lituzkeen ordainsari aldakorren zenbateko absolutuaren kalkulua, erreferentziatzen hartzen diren hipotesi edo helburuen betetze-mailaren arabera.
- Hala badagokio, ordaintzeko ezarri diren atzeratze- edo geroratze-aldiei buruz informatuko da.

Ordainsari-sistemen osagai aldakorrak
<p>Xabier Sagredo Ormaza (lehendakari betearazlea) jaunaren lan-kontratuak, bere soldata finioaren %50erainoko (48.500 €-rainoko) ordainsari aldakorra ezartzen du, erakundearen zenbait helburu betetzeagatik, alegia: a) BBKren Finantza Plana onartzea Espainiako Bankuak;</p>

eta b) Banku Fundazioak aurrekontuan sarturiko Gizarte Ekintza burutzeko behar beste baliabide lortzea. Patronatuak ebaluatzen du bi helburu hauek lortu diren edo ez.
Ez dago beste ordainsari aldakorrik BBK Banku Fundazioko beste inongo kiderentzat.

